

F. Nuñez - F. Bergara

Kristau Elkarte Herriarren eta Euskal Herriko Apaizen Koordinakundearen izenean

Askapenaren esperantzaz solidaritza

■ Gaur egungo gizasemeen poz eta esperantzak, tristura eta larrialdiak, pobre eta sufrizten dutenak bereziki, Kristoren jarraitzaileen poz eta esperantza, tristura eta larrialdi dira. Direla 30 urte Vatikanoko II.a Kontzilioa Konstituzio Pastoralan aldarrikatutako hitz hauek garai eta jite berriaren abiapuntu gertatu ziren sinestuedun askoentzat.

Izpiritu eta jarrera honekiko zintotasunez, gaur ere, Gabon eta Urte Berrietako jaien atarian, euskal preso, deportatu eta atzerriatu guztien dolore eta sufrikarioak direla eta, geure hurkotasuna adierazi nahi genuke. Hauekin batera gizarte injustoaren ondorioak pairatzen dituzten gizon eta emakume presoak oro ditugu gogoan. Biziki kezkatzen gaituzte, halabar, Jose Maria Aldaiaren bahiketa luzeak ta ekinza honen ondorio mingarri eta gatazkatsuek; lehenbailehen eta onez konpon daitezela desio dugu eta halaxe eskatzen dugu. Egun hauetan gatazken eta hauen ondorioen biktima zuenenak izan diren eta direnen dolorearekin ere bat eginez, bitarteko bortitz desberdinen gaitzetea aldarrikatzen dugu, beste behin, eta bizitzeko suntsipen prozesu guztien amaiera eskatzen dugu. Eta, batez ere, geldiarazi behar ez diren distentzia-karrizketa eta negoziazio bideen alde gauden estrategia aldaketa koalizioa parte guzti eskatuz, Marofioko taldeek proposatutako ildotik hain juxtu.

Gurekiko, erreallitate gatazkatsua hau injustizia orokorraren ondorio da. Beste dokumentu batean (Bakerapena, 1992) esaten genuenez, Euskal Herria baketzeak zera eskatzen du, Herriaren subnotasunaren arazoari zuhurki erantzutea, horixe baita beste herriekin adiskidetzeta eta solidaritza oparagoa izateko modua... justizia eta askatasuna bermatzen ez diren artean, bakea etengabeko gerra izanen da. Eta guztiau, benetan, penaz eta dolorez diogu.

Gutxiengoaren eskubideak errespetatzeko, komunitate politikoaren oinarri juridikoak ihardunbide aske eta eraginkorrez gauzatea ahalbidetuko luketen egitura juridiko-politikoak erakitzeko eta bake iraunkorraren berme izango den Herrien as-

Gabon eta Urte Berrietako jaien atarian, euskal preso, deportatu eta atzerriatu guztien dolore eta sufrikarioak direla eta, geure hurkotasuna adierazi nahi genuke

katasuna ziurtatzeko Vatikanoko II.a Kontzilioa (Gaudium et Spes, 73-75; 79) luzatutako dei larria gogorarazten dugu. Honela, bada, justiziaren bideetatik bakea bilatzen duten egitasmo guztiak eskarritzen jarraitu nahi dugu eta horrelatasuko ahalegin, bitartekotza eta ekinbideen aldeko gure konpromezuari eusten diogu. Sakonko arazo politikoaren soluzioidea eskatzen jarraitzen dugu, Euskal Herriari dagozkion eskubideen aitopenean datzana, hain zuzen.

Preso, deportatu eta atzerriatuen sufrimenduekin eta hauen eskakizunekin solidario azaldu nahi genuke bereziki. Giza eskubide fuitsekoenen alde gartzeleatan daramaten burruka latz eta luzeari, senideen eta adiskideen arazo eta sufrimenduak gehitu behar zaizkiete, sakabanaketa dela eta bidaia neketsuak egitera beharturik eta, maiz, gartzela erakundeetan aldetiko trataera ezgizatiarrak pairatu beharrean baita. Berriz egiten dugu, bada, ozenki, preso guztiak Euskal Herriari alkartzeko eskaria.

Pariseko berrikitako epaiketa erraldoian anitz herriarrek in batera kristau harrera eta bake ekinzagatik, Pierre Molerese apezpiquak onartu eta aitortu zuenez, epaitua izan den Francois Garat gure kide eta Ezpeletako parrokoak erakutsi duen jarrera eta jokabide berdintsuak, geure laguntza, abegikortasuna eta berotasuna eskaintzen jarraitzen dugu.

Hauxe eta honelakoxe solidaritza eta bihotz zabaltasunaren beste lekukotasun asko ditugu, presoak, baztertuak, gaixoak onartu, lagundu eta bisitazten direnean Kristo bera onartzen dela uste dituzten erantzun engaiatua. Horrelakoxeetan azaltzen da bere seme-alaba guztientzat justizia eta begirunea eta gizaseme eta Herri guztientzat amnistia eta adiskidetzeta hotsegin zuen Jainkoaren ahotsa.

Egun mamitsu hauetan bere herriaren oihoa entzun zuenaren eta pobre eta gartzeleratuak eta edozein kausagatik zapalduak askatzera (Lk. 4,18) etorri zitzaiguna gogoratzen dugu. Askatasun eta justiziaren esperantza honen baitatik gabon jai zorianen gure desioa. ■

Txillardegia



Psikotikoez

B azterretan pix egin omen zuten euskaltzaleak maiseatu ondoren, oraingoan, askoz ere gertakari larriago baten inguruan, «psikotiko» adjektiboa erabili du de proko euskaltzainak.

Eta egia du zenbait aldetatik. Herri honetan psikotiko ez bihurtzeko metodoa garbi baitago.

Lehenengo eta behin, orain esaten den bezala, espainiar legetasunari men egin (espainiar indar harmatuei Euskal Herriari barrena lasai ibiltzeko eskubide sakratua monopolotian utzita); nahiz, noiztenka, hitz harrokokoren bat erabili.

Bigarren puntua, bigarren eta behin, argi-eta-garbi hau jarri: hemen *Demokrazia badugula*, errespetatu beharrekoa; eta gure zoritxar guztien gakoa, abertzale *biolento* famatu pixontzi horien enuresian datzala.

Hirugarrena, hirugarren eta behin, oraindik ez beti ongi irentisia, hemen *Gobernagarritasuna* behar dugula; espainiarrek utzi dituzten legermarkoa baliatuz, akne politikogoren txarranpina gaitdituz, lparraldea ahaztuz; eta, hitz batez, *arzelluzkatuz*.

Horretara jokatzekotan, enuresiak eta psikotisiak, kitto.

Arao larri bat azaltzeko: 17 urte honetan psikotiko bihurtu gabe, Euskal Herri Askaturik ikusteko esperantzari eutsiz, jokabide miresgarria eskaini diguten aberkideak. Baina akats bat dute: halako batez *biolento* izanak dira.

Ramon Labaien



Hator, mutil, etxera

B i berebil leher-gailu bihurtuak, bi eztanda, eta denok ongi kezkatuak, hirugarrenaren zai. Giro egokia Gabon garai honetarako. Horrela omen goaz aurrera, karramarro gisa noski, atzeraka eginez. Besteak XXI. gizaldiruntz eta gu buruz behera, XIX.era, Europako indioak bagina bezala. Oraindiko ere, gure artean, zenbait taldetxo zeharo pozik, metrailaren teknologia jabetu dugunez, zer gehiago behar dugun galdetzen. Graziak, pilaka ditugula, Euskal-Herriari jotake ari diren herriarrek, alor gehienetan, Nazio etorkizunetz beteak diren bideetan bultzatzen. Politikaren ikuspegitik tristea benetan, amaitzen ari geran urte hau. Ordoñezten hilketarekin hastean eta zer izen zuen ere ahanzia dugun emakume gazte batenarekin bukatzen. Eta erdian, itxura izan duenik, deus ez. Hitzak, irteerarik ezagutu ez dituzten proposamenak, istiluak, Aldaia oraindiko putzuan, hutsa giroan eta bihotzean min. Espainiar jendea gure aurka gogortua, Euskal Herriari euskaldunak zaituak, gero eta handiago den gehiengoan hantab astokeriarekin zeharo nazkatua. Kanpotik etorri zaizkigunak bereari eusten eta gogo gutxiarekin Euskal Herriaren partaide bizi izateko. Erabakiak hartzeko garaia, garai den bitartean. Bihar Gabon gaua eta hator mutil etxera. Ziurtatuz, zutik sustengatzen dugula aitaren etxea.

L A P H I T Z A

